

Eguzkitako
betaurrekoak
moda osagarri
baino gehiago
dira /4-5

Ttakunek sinatu du hitzarmena Udalarekin.- Bost hitzarmen sinatu zituen aurreko ostegun eguerdian, Ana Urchuegia alkateak, Euskarako Batzordeko lehendakaria den Ricardo Ortegak lagunduta, bat Ttakun elkarteko Mari Jose Eizmendi lehendakariarekin eta beste lau herriko lau ikastetxetako zuzendariarekin. 2008-2009 ikasturtean Ttakunek zein ikastetxeek burutuko dituzten hainbat egitasmoetarako diru-laguntza finkatzen da hitzarmen horietan. Ikastetxeek Udalarekin sinatutako hitzarmena berria da, baina ez beraien lana. Hasiera-hasieratik Udala sortu zenetik ikastetxeek burutzen dituzten hainbat egitasmo hitzarmenean jaso eta izango duten diru-laguntza zehaztu direla jakinarazi zuen Ricardo Ortegak. **2. ORRIALDEA** •

Euskara ziurtagiriak sinatu dituzte

Ostegunean sinatu zituzten Enpresako Euskara Plan Integralak eta Udalaren Euskara Ziurtagiriak kulturetxean. Enpresetarako Euskarako Plan Integrala honakoek sinatu zuten: Indartuz prestakuntza fisikoa, Haritza terapia, Bikain, Ekain, San Miguel eta Goxogi okindegiak eta Auzoko denda. Udaleko Euskarako Ziurtagiria berriz, Aski eta Pikabea aholkularitza, Txixardian eta Izarra bitxitagia. •



GIZARTEA ■ 3

**Factoring
izeneko stocken
azoka izango da
irailean
Michelinen**

KULTURA ■ 3

**Doinu afrikarren
emanaldi ederra
Senegaleko talde
baten eskutik
Jalgi kafe-
antzokian**

KIROLA ■ 6

**Lasarte-Oriako
futbolariak
Donostia Cup
txapelketan
jokatu dute**

M. Berasategi

Kafeak



Beti dago aukera
kafe on bat hartzeko



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA,
KAMAMILA, MENTA,
SAGARRA, ANIXA,
MAKILGOXO, ROOIBOS,
e.a...



KAFE ARABIKOA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
LASARTE-ORIA

BELARTZA JATETXEA TABERNA

Asteburutako menua 11€

Eguneko menua
Ogitartekoak
Plater konbinatuak

Larunbata gaua
eta igandea
ibital

Belartza poligonoa
Gurutzegi kalea 15, 4A Pabillioia
20018 Donostia • Tel.: 943 376082

Ttakunekin eta herriko ikastetxeekin hitzarmenak sinatu ditu Udalak

TXINTXARRI

2008-2009 ikasturtean Ttakun Kultur Elkartek eta herriko lau ikastetxek burutuko dituzten egitasmo ezberdinak diruz lagunduko ditu Udalak eta laguntza horiek finkatzen dituzten hitzarmenak sinatu zituzten aurreko ostegunean. Udaleko Ana Urchuegia eta Ricardo Ortegaekin. Ikastetxeekin hitzarmenak berriak dira, aurten lehenengo aldiz sinatu dira ikastetxetako aldizkariak eta beste zenbait programa diruz lagunduko. Ttakunek Udalaren laguntzaren truke batetik Aisialdia euskaraz burutzeko eskaintza, besteak beste, udako txokoak, kanpaldiak, Amaraun ludoteka eta kuadrillategi programa, bestetik Txintxarri aldizkaria eta azkenik solaskide-solasbide programak kudeatuko ditu.

Bost hitzarmena sinatu zituen aurreko ostegun eguerdian, Ana Urchuegia alkateak, Euskarako Batzordeko lehendakaria den Ricardo Ortega lagunduta, bat, Ttakun elkartero Mari Jose Eizmendi lehendakariarekin eta beste lau herriko lau ikastetxetako zuzendariekin. 2008-2009 ikasturtean Ttakunek zein ikastetxeek burutuko dituzten hainbat egitasmoetarako diru-laguntza finkatzen da hitzarmen horietan.

Ricardo Ortega, Euskara Batzordeko lehendakariak egin zuen hitzarmenaren azalpena. Batetik Ttakunekin sinatutako hitzarmenari buruz esan zuen laguntzen diren programak hamaika direla, hiru multzotan banatuta: "Alde batetik, multzo nagusia haurren eta gazteen aisialdia eskalduntzera zuzendutako programak biltzen ditu (udako txokoak, gazteentzako kanpaldiak, Amaraun ludoteka, Kuadrillategi programa eta abar), bestetik, Txintxarri aldizkaria laguntzen du diruz, eta azkenik, Solaskide-solasbide programa, euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak euskara ikasten ari direnekin edo hitz egiteko harreman-sareak nahi dituztenekin harremanetan jartzeko dituen programa dago diruz lagundutakoan artean".

Programa horien guztien antolaketa osoa prestatzeaz, herritarrei informazioa ezagutarazteaz eta behar diren langile guztiak zein diru-kontuak kudeatzeaz Ttakun arduratuko da eta trukean 191.578,80 euroko laguntza jasoko du.

Itun berriak ikastetxeekin

Herriko lau ikastetxeetako zuzendariekin Udalak sinatu dituen hitzarmenak berriak dira. Dena den, Ricardo Ortega nabarmendu zuen ikastetxeek hasiera-hasieratik, Udala



Hitzarmenaren helburua herritarren artean euskararen erabilera sustatzea da.

osatu zenetik, lan egin dutela elkarrekin herriko haur eta gazteen hizkuntza maila hobetzen, baina egokia ikusi dutela burutzen diren programa guztiak hitzarmenaren jasoetza.

Ondoren diruz lagunduko diren programen zerrenda egin zuen, eta nagusiak aipatu: ikastetxetako aldizkariak (Irakutrezin, Esazu eta Irrintzi), pertsonaia ezagunen bisitak, zinea euskaraz ikusteko programa, eskola-orduz kanpoko jarduerak eskalduntzeko Hezitzaileek asko egin dezaketel programa, Lagunarteko hizkerarekin jolasean

programa (gazte-hizkera lan-tzea helburu duena) edo Ahozkotasuna eta bertsolari-tza programa.

Lau ikastetxeekin sinatutako hitzarmenak desberdinak badira ere, bai programetan eta bai dirutan, guztira lauen artean jasoko duten laguntza, 47.960,68 eurokoa da. Aurrekontu hori dauka Udalak.

Ikastetxeen izenean, Lasarte Usurbil institutuko Ester Urrutia, Sasoeta-Zumaburuko Koru Garmendia, Landaberri ikastolako Josu Garmendia eta Landaberri institutuko Abene Arriola.

Urchuegiak garrantzia eman zion aurkezpenaren hitzarmenari, herriko parte handi baten jarduerak jasotzen direlako bertan. Gogoratu zuen Udaletik diru gehiena jasotzen duen erakundea dela Ttakun, eta hurrengo urtera begira krisi ekonomikoaren ondorioz agian laguntza berplanteatuko dela abisatu zuen. Ondoren diru publikoak ondo erabiltzeko eskatu zion hitzarmena sinatu duten erakundeei. Hitzarmenak, irailaren 1etik datorren urteko abuztuaren 31 bitarteko iraupena du. •

Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilek batera segiko dute kirol zerbitzuan

Irailaren 1etik aurrera, Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo kirol zerbitzuek eskaintza bateratua izaten segiko dute, baina, orain arte taldean izan den Hernaniko zerbitzua atera egingo da.

Ana Urchuegia eta Mikel Izagirre, Lasarte-Oria eta Urnieta-ko alkateek aurkeztu zuten, ostiral eguerdian, Buruntzaldeko Udalerrien Kirol Arloko elkarlan hitzarmen berria. Aurrekoaren jarraipena izango da, baina Hernani gabe irailaren 1etik aurrera Hernaniko Udalak ateratzea erabaki duelako. Lasarte, Urnieta, Andoain eta Usurbilek batera funtzionatuko dute kirol arloan eta aurkezpenean azken bi herri hauetako kirol patronatoetako buruak ere izan ziren, Fernan-

do Narciso eta Lontxo Zubiria, hurrenez hurren Andoain eta Usurbilgo zinegotziak.

Buruntzaldeko lau herriak, aipatutako Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilek, kirol arloan bat eginik jarraituko dute. Hernanik akordiotik ateratzea erabaki duenez, hitzarmen berria sinatu zuten atzo Lasarte-Oriako Udalean egin zen ekitaldian eta irailaren 1etik aurrera indarrean izango da egungo hitzarmenaren jarraipena.

Ana Urchuegia alkateak aurkezpenean adierazi zuenez, "tamalez" ez dago Hernani eta hitzarmenaren helburu eta onurak aipatu zituen. Herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzea, _guztiak izango dute lau herri hauetako kiroldegietan ibiltzeko aukera eta herri

batek eskaintzen ez duena beste batean izateko aukera... Kudeaketarako ere onuragarria da, erabiltzaile gehiago izatean, errazago lortu baitaitezke beste administrazioetatik laguntzak. Guztiek tarifa berberak dituzte duela urte batzuetatik hona. Beste helburu batzuk, gurasoei kirolletako eskaintzaren berri emateko edo kirolean euskara bultzatzeko aukerak ere aipatu zituen Urchuegiak.

Ondoren Mikel Izagirre Urnieta-ko alkateak, euskaraz, azaldu zituen hitzarmenaren nondik norakoak, zera nabarmenduz, batuta, errentagarritasun sozial handiago duela. Bere ustez, nahitaezkoa da elkarlana, hiri handiek zerbitzu guztiak eskaintzeko prestatuta badaude ere, herri txikien



Ana Urchuegia aste honetan bigarren aldiz hitzarmenak sinatzen.

barrezkoa dute ingurukoekin partekatzea. Beste arlo batzuetara zabaltzeko aukera ere aipatu zuen, hau da, ongi izate arloan ere interesgarria izan daitekeela herri bakoitzak dituen baliabideak partekatzea. "Arlo askotan dago erabilpen

amankomunaren beharra, herritarrei ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko".

Euskarari kirol arloan eman zaion eta emango zaion bultzada nabarmendu zuen eta oro har bide positiboa dela, beti lehengoa hobetzen saiatuz. •

Factoring izeneko stocken azoka

- Stockaren feria irailaren 21ean izango da Michelinen eta egun osoan egongo da zabalik
- Azokan Lasarte-Oriako edozein establezimenduk hartu dezake parte; interesa dutenek horretarako, izena uztailaren 30a baino lehen eman behar dute.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Merkataritza Mahaiaren ekimenez merkatariek stocken dituzten produktuei irtenbidea eman nahian, Factoring izeneko azoka antolatu dute. Azoka irailaren 21ean izango den arren, bertan parte hartzeko interesa duten herriko merkatariek uztailaren 30a baino lehen eman behar dute izena.

Otsailean eratu zen Lasarte-Oriako Merkataritzaren Mahaia Lasarte-Oriako Udalak (Merkataritzako Departamentua), ATERPEA Merkataritza-Elkarteak eta Buruntzaldeko Merkataritzari Laguntza Teknikoa emateko Kabineteak (MLTK) osatzen dute. Kabineteak arduradunak, Gorka Goikoetxeak, mahaia funtzioa azaldu du: "foro horretan sektorearekin zerikusia duten ekintzak, betiere gure udalerrian jarduera komertziala dinamizatzeko xedearekin, aztertzen eta koordinatzen dira".

Gorka Goikoetxeak helarazitako informazioaren arabera, "Merkataritzaren Mahai horretan egin diren bileren fruitu, Factoring izeneko Stocken Feria bat antolatzea erabaki da". Ekimen honekin, komertzioek metatuta duten produktuei irtenbide bat eman nahi diote prezio era-



Komertzioek metatuta duten produktuei irtenbide bat eman nahi diote prezio erakargarriekin azoka honetan.

kargarri eta pagotxen bitartez.

Guztientzako azoka

Esan bezala irailaren 21ean goizeko 10:00etan irekiko dituzte Stockaren Feriaren ateak, Michelingo instalazioetan eta arratsaldeko 20:00rak arte irekita egongo da. Burun-

tzaldeko merkataritzako teknikariak herriko merkatariek bertan parte hartzera animatzen ditu: "bilgia husteko eta metaturiko stocka diru bihurtzeko aukera izango dute; euren denda ezagutzera emango dute azokara datozen artean eta Lasarte-Oria

erakargarriago bat lortzen eta udalerrriaren irudia promozionatzen lagunduko dute".

Lasarte-Oriako edozein establezimenduk hartu dezake parte. Herriko parte-hartzaile gutxi baldin badago, beste herrietako komertzioei ere parte hartzeko aukera

emango zaie. Bertan parte hartzeko uztailaren 30a baino lehen Gorka Goikoetxearekin, Merkataritza Teknikariarekin, harremanetan jarri behar zarete 943-456333 telefono zenbakian edo posta elektronikoaren bitartez, gorka@aega.es. •

Doinu afrikarrak izan ziren entzungai Jalgin

Pasa den ostiralean, hilaren hamaikan, Djum Djum Afrika izeneko proiektua izan zen ikusgai Jalgi kafe-antokian Ttakunek antolatuta hileroko programazioaren barruan.

Aipaturiko proiektuan, perkusio afrikarra da nagusi (djembeak, balafoia...), baina beste zenbait instrumentuekin lagunduta. Ostiralean oholta gainean perkusio afrikarraz gain, baxua, saxoa eta zenbait sokazko afrikar instrumentu izan ziren emanaldia borobiltzeko.

Proiektu honen partaide lau kide dira, argazkian agertzen diren moduan. Lau horietatik bi iparraldekoak dira eta

beste bi senegaldarrak. Perkusioa jotzen zuen senegaldarra, argazkian eserita ageri dena, herriko zenbait musikariren irakaslea dugu. Kontzertua nahiko modu informalean egin zuten, eta oso giro ederra egon zen kontzertu osoan zehar Bildutakoek, oholta gainean zeudenean sortutako erritmoak ederki jarraituz dantzatzen aritu ziren.

Gogoratu, Jalgioko uztaileko programazioaren barruan, datorren larunbatean, hilaren 19an gaueko 22:30etik aurrera Break Dance ikusteko aukera izango dela Zarautzeko Funk eta Hip Hop talde baten eskutik. •



Eguzkitako betaurrekoak moda osagarri baino gehiago dira

Udan gaudela eta, eguzkitako betaurrekoak dira ia egunero kalera ateratzen ditugun osagarriak. Askotan moda kontua da eta dotoreago ikusten dugu geure burua betaurrekoekin baina berez begien osasunerako objektuak dira, begiak babestea dute funtzio nagusi eta horregatik ezaugarri batzuk bete behar

Helena FERRERAS

Irigoyen Optikan izan gara Elena Sanchez eta Idoia Zarauzekin eta betaurreko batek izan behar dituen ezaugarriak azaldu dizkigute. Erotera goazenean kontuan hartu beharreneko ehatsunak garrantzitsuak dira, batez ere lenetaren kalitatea.

Eguzki betaurrekoek, batetik guk somatzen dugun argitik babesten gaituzte eta bestetik kaltegarriak diren izpi ultramoretatik horregatik kontuan hartu beharreneko berezitasunak asko dira. Guk somatzen dugun argiaren murriztea hobeto ikusteko da baina ultramoretak dira benetan kalte egiten ditugunak eta horiek ez ditugu somatzen.

Kristalaren koloreak pasatzen den argi kopurua zehazten du baina ez du zerikusirik izpi ultramoretarekin, horiek filtro batzuen bidez kontrolatzen dira eta horiek 0tik 4ra arte doazenak dira. Normalean erabiltzen direnak eta arruntetan 2 edo 3 mailakoak dira. Filtro altuko betaurrekoak ezin dira oso argiak izan baina kristala iluna izateak ez du esan nahi babes filtroa altua izango denik. Kristalaren koloreak bigu t s e z



ikusten dugu argiaren kantitate handi edo txikiagoa pasatzea besterik ez du neurtzen baina begientzat kaltegarri diren izpien aurrean babesteko gaituzten betaurrekoak dira egokienak.

Betaurreko batzuk egoera onean egoteko eta aproposak izateko lehenengo gauza lentea bal-

dintza onetan egotea da. Fabrikatik akatsik gabe egon behar du, hau da, burbula edo forma-anormaltasunik eduki gabe. Hau ezin da begi hutes ikusi, gauki berezi batzuk beharrezkoak dira betaurrekoak egoera onean daudela eta kalterik egingo ez digula ziurtatzeko. Optiketan baduzkate gauki horiek eta gure betaurrekoen nolokotasuna jakin nahi izanez gero bertan esango digute.

Norberarenak aproposenak

Bakoitzak egunero egiten dituen jarduerak hartu behar ditu kontuan betaurreko aproposak aukeratzeko. Ez da berdina izango kalean lan egiten duen norbaitentzat edo eguneko denbora gehiena bulegoan ematen duen batentzat, eguzki ordutan pasatzen den denbora hartu behar da kontuan betaurrekoak erostera bideratuko orduan. Beste alde batetik bizi garen hiri edo herrialdeak ere zeresan handia du, ez da berdina hemen edo Sevillan bizitzea. Afrikako herri askotan hemen baino gaezagoetan sortzen zaizkie kataratak, han eguzki esposizioa eta izpien islada handiagoak direla.

Hurrengo lana kristalen kolore aukeratzeko da. Pasako den argi kopurua baldintzatuko du eta esan bezala

tokietan, adibidez hondartzan, itsasoan, elurretan edo mendian. Printzipioz betaurreko guztiak babesten dute izpi ultramoren aurrean baina leku batzuetan kalte handiagoa denez babesak ere handia izan behar du.

Adi kalitateari

Kalitate txarreko eguzki betaurrekoak erabiltzea kaltegarria da oso gure begientzat. Lente iluna izaten dute eta gure pupila ireki egiten da argi gutxi geroztan delako, pupila irekita geroztan izpi ultramoretak erazago eta gehiago sartzen dira begietan. Arriskutsuagoa da beraz, kalitate txarreko betaurrekoak erabiltzea bixera bat edo besterik gabe betazala piska bat itxia edukitzea baino, kasu honetan gainera pupila txikituko litzateke argiagatik eta izpi kantitate gutxiago sartuko litzateke. Begiak berak babesteko mekanismo naturalak dauzka, pupila eta betazalak. Bestalde begiaren koloreak ere zerikusia du pasatzen den izpi kantitatearekin, begi argiagotzen kantitate handiagoa igarotzen da ilunetan baino.

Babesa garrantzitsua da, gainera ozono geruza murrizten doa eta ondorioz ultramore koanitate handiagoa igarotzen da lurerra, beraz geroz eta babes gehiago behar dugu bai azalean eta baita

“Eguzkitako betaurrekoak erostean bakoitzaren bakoitzaren ohiturak hartu behar dira kontuan, orokorrenean denak dira onek baina jarduera batzuek lente berezia behar dute babesa aproposa izan dadin”

librea ere geroz eta gehiago da eta lehen baino jende gehiago joaten oporetan hondartzara, beraz faktore askok dute zerikusia, geroz eta eguzki izpi gehiago jasotzea eragiten digun bizitza daukagu. Aipatu behar da askotan ez bagara konturatuzen ere ez dute zertan

eguzki izpiek zuzenean eman behar linoitua dagoen egunetan ere izpiak pasa egiten dira laino artean.

Beraz eguzkitako betaurrekoak erostera goazenean gure bizimodua zein den pentsatu behar dugu. Kalitate oneko betaurrekoak aurkitzea ez da zaila izango, leku berezietan

erostea kalitate berrea da, baina jarduera batzuetarako betaurreko espezifikoak behar dira. Normalean betaurreko batzuk ia denetarako izango dira baliagarriak baina norbait mendira edo itsasora asko joan ezkerreko komeni-garia litzateke betaurreko bereziak edukitzea, arantzan ibiltzen diren askok ere beste betaurreko batzuk behar izan behar dira izpien isla handia delako eta babesa ere handiagoa izan behar izan behar du.

Kontu berezia

Kontu berezia eduki behar da haurren eta pertsona helduekin. Txikiak begiak oraindik osatzen ari dira, askotan puskatuko dituzten helduraren betaurreko txarrekoak ezin dira erabiltzea. Pertsona helduen begiek desgaste bat izan dute, ondorioz, filtro naturalek ez dute berdin funtzionatzen eta ahulagoa izaten dira horregatik zainketa handiagoa behar izaten da kasu hauetan.

Europar Batasunerako araudia

Europako Batasunaren produktuak merkaturatzeko baldintza batzuk bete behar dira, eguzkitako betaurrekoak osasunerako tresna dira horregatik kontrol batzuk pasatzen dituzte egoizleek. Baldintza horien artean erresistentzia, gogortasuna eta kalitateko faktoreak hartzen dira kontuan, bai armazoietan eta baita leneteetan ere.

Betaurreko bat erostean berak liburuxka bat dakar eta bertan aipatzen da babes faktorea eta zertarako diren egokiak. Kontuz ibili behar da zeren degaratuak diren betaurreko asko nahiz eta 3. faktorekoak izan alde ilunenean besterik ez dute gainontzeko zatian babes maila txikiagoa da, horregatik denbora askoan egon behar badugu eguzkitan ez dira horrelakoak komeni.

Araudia honek garrantzia handia ematen dio gidatzeko betaurrekoak egokiak diren edo ez azaltzen. Adibidez 4. faktore ilunegia da kotoxan erabiltzeko, tuletetan edo arrats partean gidatzeko ez dira ego-

kiak ezta laino askorik ez dagoen ere momenturen batean itzal gune batean sartu gaitzekelako eta nahiz eta kontraturatuzkoak izango dira baliagarriak ez detaile batzuk galdu ditzakegu. Gidatzeko gomendatzen diren betaurrekoak 3. faktorekoak dira eta polarizatuak hobe, hauek liluraldi edo itsualdiak gaitzesten dituztelako.

CE zigilua

Europar zehar produktuak hauen itzal ahal izateko arau batzuk bete behar dira eta betetzen direla ziurtarazteko "CE" ikurra darama produktuak berak. Arazoa ikur hau faltsifikatzea gauza erraza dela da baina ikur hori ekoizlearen ardura erakusten du, hau da, betaurrekoak egiten dituen da haien arduraduna. Beste alde batetik optiketan ere kontrolak egiten dira osasun sailetik saltzen dituzten produktuak osasunagarririk direla ziurtatzeko.

Europar Batasunaren salmenten egoteko, eguzki betaurrekoek, erresistentzia frogatuak pasa behar dituzte lenetearen kalitatea neurtzeko. Horretaz gain lenetearen kalitate optikoak ere on izan behar du, ezasterako lenetearen alde guztiatik argi kantitate berria pasa behar da, ezin da burbula edo bestelako malfomazioerik egon, bi aldeetatik filtratu behar dira izpiak neuri berean, eta urteekin filtroak ez dira galdu behar desgastatzen ondorioz. Adibidez betaurrekoak urratzen zaizkigunean gure horretan babesa gaitzen da eta ez dute berdin babesten.

Lente bereziak

Faktore jakin batekoak izanda ere lentea, arrunta, polarizatu edo fotokromatikoa izan daiteke. Fotokromatikoa, kristalak duen kolorea duela eguzki argiarekin ilundu egiten da, beraz behar denean argi gutxiago pasatzen da eta hobeto ikusten lagunduko du. Polarizatuak lilitratzeak gaitzesten dira horregatik gomendatzen dira gidatzeko, mendira edo itsasorako. Erradiazioak aukeratzeko dituzte lente mota honek eta gehiago filtratzen dira izpiak, gehiago babestuko ditu kristalaren goi eta beheko partean bertatik igarotzen direlako

izpi ultramore gehienak, hau da, eguzkitik zuzenean datozenak (goikaldetik) eta erreflejoen bategatik (behekaldetik), adibidez itsasotik. Beste aldebatetik izpiulenteak kristalak daude, hauek izpiak isladatzen dituzte horregatik gutxiago sartzen dira begian eta oso egokiak dira.

Noski, betaurrekoari edo kristalari gehitzen diogun gauza bakoitzak prezioa garestitzen du baina horrelako ezaugarriak oso espezifikoak dira eta ez ezinbestekoak, batzuk ez dituzte hainbeste erabiliko beraz, ez du horrelako betaurreko espezializatuek erostea merezi. Edo alderantziz, agian garraiorik batentzat bere lanerako horrelako tresna bat primerakoa da eta hobe modan ez joatea baina lanerako tresna diren betaurrekoak oso babesteak.

Diseinua da garesti egiten dituenak

Eguzkitako betaurrekoak moda osagarriak dira eta horrek neuri handi batean baldintzatuko gaitu betaurrekoak erostera orduan, baina kontuz ibili behar da, erabiltzen ari garen lentea oso dela ziurtatu behar dugu. Kristal on daukatuen betaurreko merkeak badaude, baina modan daudenak nahi izanez gero prezioa dexente igotzen da. Oso garrantzitsua da erabiltzen ari garen betaurrekoen kalitatea ezagutzea da, eta askotan ez dago prezioarekin zuzenean harremanetan, gauza bat lentea da eta bestea diseinua. Normalean betaurreko garestiak onak izaten dira baina lenteaz gain diseinua oraindian da kasu horietan, armazoiaren materiale mota batzuk besteak baino hobeak eta garestiagoak dira eta koloreak ere bereziak izaten dira, badaude hari bitxiak dituztenak.

Jakin behar dugu eguzkitako betaurrekoak ez direla apaingarri soil bat, horregatik baldintza batzuk bete behar dituzte gure osasuna zaindu dezaten. Optiketan dituzten argi gutxiago leku espezializatuen aholkularitza pertsonalizatua egoten da, zeure beharren arabera.

Betaurrekoen funtzioa begia babestea da, hobeto ikusteko eta osasuntsua izan dadin bezitza osoan zehar. Profesionalengana



Betaurreko modelo ugari daude merkatuan gaur egun, forma eta kolore askotakoa.

“Eguzkitako betaurreko txarrak erabiltzea baino komenigarriagoa da ezer gabe joatea edo bixera bat jaztea”

Marka asko eta asko aurkituko ditugu denda eta optiketan, batzuk arruntak eta besteak diseinu berezia duten betaurreko garestiak. Elena eta Idoiak salduenak zeintzuk diren kontatu digute.

Eguzki betaurrekoen zaintzea

Kontu handia eduki behar da betaurreko garbitzerako orduan erraz urratu ditzakegulako eta urratuz gero lentea eraldatu genduz gero funtzioa aldaraziz. Betaurrekoekin dotozen kotoiz-

ko traputxoak egokiak dira horretarako baina ez paper edo arropak, hauek askotan zakarregiak izaten direlako eta betaurrekoak hondatu dezakete. Kristalean arrastorik ez uzteko hobe da trapua hezea baldin badago, urarekin ere garbitu daitezke baina armaziok ez dira horretarako aproposak izaten eta izorratu daitezke.

Betaurrekoak hartzen ditugun hobe da bi eskuekin hartzea deformazioerik eman ez dadin, armaziotik heldu behar dira kristala zikindu edo hondatu ez dadin.

Salduenak

Marka asko eta asko aurkituko ditugu denda eta optiketan, batzuk arruntak eta besteak diseinu berezia duten betaurreko garestiak. Elena eta Idoiak salduenak zeintzuk diren kontatu digute.

Orkorrean markarik salduena Ray Ban markakoak dira, kalitate oneko lenteak dituzte betaurreko hauek eta gainera moda jarraitzen dute. Hala ere,

arruntagoak diren modelook dituzte beraz aukeratzeko sorta zabalagoa ezberdinetarako. Ez dira merkean baina ezta garestienak ere eta jendeak betaurreko batzuek pagatzen prest dagoen salneurrian daibiltza. Izan ere egina du marka honek jendarean, badi-rudi jendearen konfidantza irabazita daukela.

Kirolerako Bollé eta Arnette markak dira gehien saltzen dituztenak Irigoienek. Bollé marka praktikoa eta ona da eta Arnette-ekoak kirolerako aproposak diren arren moda jarraitzen duten modelo asko daude.

Vogue betaurrekoek daukaten salneurria eta kalitatearen arteko epea egokia da eta gainera diseinua asko zaintzen dute. Cavali eta Gucci dira garestienetarikoa horregatik besteak baino gutxiago salten dira. Optikan daukatuen betaurreko garestiena 300 euroak gaintzen ditu baina bezero gehienek 100euro inguru gastatzen dituzte eguzki betaurrekoak erostera.

Kristalen koloreak

Gehien erabiltzen diren koloreak berdeak, marroiak eta grisak dira. Beraz, filtroek lortu behar dutena errealitateko koloreak ahalik eta gutxien aldatzen saiatu behar dira, hau da ikusten duguna ahalik eta naturalena izatea.

Marroia: Koloreak gehien aldatzen dituen da, gauza gorrixkak ikusten dira, gehien bat neguko kirolak egiteko, tennisaren aritzeo edo argi askoko guneetan erabiltzeko aholkatzen dira.

Grisa: koloreak gutxien aldatzen dituen da, honda ahalmen guztiaren argi kantitate berdina xurgatuzten duelako. Denbora luzean erabiltzeko edo gidatzeko aholkatzen dira.

Berdea: ez ditu koloreak asko eraldatzen, gomendagarriak dira hipermetropia daukan jendearentzat

Horia: Besteak baino gutxiago erabiltzen dira. Kontrastea handitzen du, gidatzeko edo behelainoan kirola egiteko erabiltzen dira. Bakarrik kontrastea handitu nahi denean erabiltzen da eta ez argi gutxi nahi denean adibidez plater tiraketan erabiltzen da, pertzeptzio handia behar delako eta ez argiaren gutxitzea.

Lasarte-Oriako futbolariak Donosti Cup txapelketan jokatu dute

■ Ostadarreko kadeteek eta jubenilek eta Lasarte-Oria Texas taldeko jubenilek hartu dute parte

TXINTXARRI

Aurreko astean hasi zen 2008ko Donosti Cup txapelketa. Aurten go edizioan 12 herrialdeetako 241 talde eta 4.428 futbolariak parte hartu dute. Hauen artean Lasarte-Oriako futbolariak izan dira bertan: Ostadarreko kadete eta jubenil mailako jokalariek eta Lasarte-Oria Texas jubenil taldea. Ostadarreko kadeteak eta Lasarte-Oria Texas kontsolazio txapelketa jokatu dute eta Ostadarreko jubenilak berriz, txapelketaren faseko final laurdenetara iritsi dira.

Urtetik urtera Donosti Cup txapelketak arrakasta handiagoa du eta ez bakarrik Gipuzkoako taldeen artean, baizik eta kanpoko futbol taldeen artean ere. Lasarteoriatarrek ere bertan egotea gustuko dute, izan ere urte askotan hartu dute parte honetan. Martijatarrek izan ditugu Ostadarreko futbol taldeen gidariak. Mikelek urte honetan ohorezko mailara igo duen taldearekin jokatu du Donosti Cup txapelketa, baina ez dira oso fin aritu, kontsolazio liga jokatu dute eta. Hala eta guztiz ere, entrenatzailea pozik dago emaitzak onak izan ez diren arren, aste osoan zehar futbolaz gozatzeko aukera izan dutelako. "Arierio indartsuen aurka jokatu behar izan dugu eta gainera ez dugu zorterik izan. Baina, ondo pasa eta asko disfrutatu dugu".

Ostadarreko kadeteak

Ostadarreko kadete taldeak Groseko taldeari irabazi zion partidua, 0-3; hurrengo egunean Intxaurrendoren aurka 1-2 galdu eta CP Hervas taldearen aurka berdindu zuen. Emaitza hauekin bigarren fasea jokatze-

ko sailkatu ziren Ostadarreko jokalariek. Ostegun goizean, Martutene taldeari 2 golengatik irabazi zion eta final laurdenetan Ordiziaren aurka jokatzea egokitu zitzaion. Partidua bana bukatu ondoren, penaltiak bota behar izan zituzten, 5-4 galdu zuen Ostadarrek.

Ostadarreko jubenilak

Josu Martijaren taldea berriz, jubenilak alegia lehenengo fasea erre zuten, joko ona eginez; fase horretan talde onena izatera iritsi ziren, 13 gol sartu zituzten (Txelsiri 6, Abu Gosh-Mevaseret-i 5 eta Antiguotarrari 2) eta ez zuten bakarria ere jaso.

Final zortzirenetan berriz, Zurriola Ikastolaren aurka jokatu zuten. Herrikoek partidua onak jokatu bazuten ere, penaltian erabaki zen partidua: 2 gol sartu eta 4 jaso zituzten, beraz lehiaketatik kanpo geratu ziren. Taldea lur-jota geratu zela esan digu Josuk, izan ere txapelketan urrutirako iristea gai ikusten baitziren.

Lasarte-Oria Texas

Manolo Isasak Mikel Olarra jokalariairekin laguntzarekin zuzendu du Lasarte-Oria Texas jubenil mailako taldea. Jubenil talde honek Alsasua eta Sorgina taldeen kontra galdu ondoren, Donostiasan-sebastian.com taldeari erraz irabazi zion, 4-1. Emaitza hauekin 3. sailkatu ziren lasarteoriatarrek eta kontsolazio txapelketa jokatu zuten. Final zortzirenetan Kirol aukerari 3 eta 1 irabazi ondoren, final laurdenetara pasa ziren, baina hemen 4-0 galdu zuten. Beraz, hauek ere ezin izan zuten final erdietara pasa. •



Goiko argazkian Ostadarreko kadeteak eta behekoan jubenilak.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA


Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak. Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

EVA LIZARRAGA margolariaren lanak egongo dira ikusgai hila-bete osoan Jalgin, egun osoan.



Igandea, 20

Azoka

SANTA ANAKO XXV. ARTISAU AZOKA. Okendo plazan Sendoki taldearen eskutik, 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

Osteguna, 24

Jaialdia

NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIAN aurten ere hainbat herrialdetako taldeak etorriko dira ikusleen gozamenarako. Manuel Lekuona kulturetxean, iluntzean.

Larunbata, 26

Antzerkia

SANTA ANAKO PARODIA antzez-tuko da urteroko moduan Okendo plazan iluntzeko 22:30etatik aurrera.



Breakdance Jalgin larunbatean

BREAKDANCE Saioa eskainiko du Zarauzko taldeak larunbatean Jalgin. Dantza saioa, Funk eta Hip Hop musikarekin girotuta izango da. Aukera bikaina beraz, mota honetako dantza ikusteko.

LARUNBATEAN, 19AN
22:30ETAN
JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



Eskutitzak

Egun gogorra

Lerro hauek idaztea ez da atsegina baina denok dugu muga bat eta batzuetan gertaera batzuek gaintzea eragiten dute. Gaur pleno gogorra izan dugu, ANV taldearen suspentsioa aurrera atera behar genuen. Betiko erradikalen zorrotasunagatik alkateak plenoa bertan behera utzi behar izan du behatzarekin seinalazten gaituztenen irainak eta salaketak jasaten genituen bitartean gero beste batzuek tiro egin diezaguten. Ana Urchuegia Alkateak, Valle de los Caídos-era Francorekin hilarri baten azpira bidaltzearen mehatxua jasan behar izan du. Gustu txarreko txantxa ez balitz haien ETako lagunek hil dituzten kideak ditugulako, haien artean, Froilan alkate ordea. Zoritxarrez, normalean jasan behar ditugun mehatxuak dira eta horien artean inguratuak eta eskoltarekin bizi behar dugu.

Oso desatsegina baina jendilaje honengandik ezin dugu gehiago espero. Herritarrengandik ordea gehiago espero dezakegu. Hauetako askok, gure ekintzekin bat etorri edo ez, babesa ematen digute erabatean edo bestean, baina eguneroko bizirik iraun ahal izateko egiten dugun esfortzua onartuz.

Baina gaur benetan sumindu nauena herritar baten jarrera izan da, zeinek anonimotasunetik gure askatasun ezaren egoera latz horri barre eta iseka egin dion. Hau da: aparkaleku erregimenaren gainean herritarrek dituzten lehenetsueni buruzko parte

hartzeko prozesu bat ireki dugu, haien nahiak ezagutu eta hobeto lan egiteko.

Herritar honek bere erantzunean lotsarik ez dugula aurpegi-ratu digu, eskolta daramagun zinegotzietik: "... gasolina gratis, coche gratis, aparcar gratis y escolta a cuenta del pueblo" daukagulako. Herritar honi galdetuko nioke zein iritzi daukan bere seme-alaba gazte batek ezingo balu lagunengana joan hauek arriskuan ez jartzeagatik, edo bere alaba batek ezingo balu alaba herriko parkera edo haurtzaindegira eraman ETAK jarraitu duelako eta haurrarentzat arrisku larria delako, edo bere denborako orduro beldurra edukiko balu, zer egin dezakezun eta zer ez, etxeko pertsiak jaitzita eduki beharko balitu egiten duen eguraldia egiten duela, edo hondartza edo mendira joatea ukatzea edo bikotekidearekin erosketak ezin egitea... terraza batean lasai disfrutatu kafe bat hartzen. Ez dugu aparkatzeko arazorik ez dugulako gure kobaxerik erabilzerik hiltzeko arriskurik gabe.

Ez da lotsa falta zaiguna askatasuna baizik, hiltzera zigortuak gaudela momentu oro gogorazten digun askatasun hori. ETAK hildako ia mila lagunak bezain erreala den heriotza zigorra.

Erantzun hori idatzi duenari eskatuko nioke lotsa eta duintasuna nork ez duen eduki hausnartu eta pentsatu dezan.

ERREDAKZIOAN ITZULIA

Iñaki Mugica Flores
Lasarte-Oriako PSE-EE zinegotzia

Oharrak

Olitera irteera

Lasartearra elkarteak, irteera antolatu du datorren uztailearen 31rako, San Inazio egunerako. Aurten Oliteko Ochoa bodegetara egingo dute irteera eta herrian bertan dagoen jatetxe batean bazkalduko dute. Parte hartu nahi duenak elkartetik pasa eta izen eman besterik ez du uztailearen 25a arte.

Udal kiroldegiko bazkideak

Udalaren kirol instalazioak uztailetik abendura erabiltzeko asmoa duenak, urte erdiko abonoa egiteko epea irekita dagoela jakinarazi dute kiroldegitik. Informazio gehiago nahi izanez gero Udal Kirol Zerbitzuetak bulegoetara jo daiteke (943.376182).

Kiroldegiko udako ordutegia

Udako ordutegia martxan dago kirol instalazioetan, bai

Kiroldegian, bai Kirol Gunean. Kiroldegia astelehenetik ostiralera 7:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo da irekita eta larunbatetan, berriaz, 9:00etatik 13:00etara. Igandetan itxi egingo dute. Bestetik, kiroldegitik erabiltzaileeri jakinarazten zaie Lasarte-Oriako igerilekua uztailearen 25an eta 31ean, goizez, zabalik egongo dela, goizeko 9:00etatik 13:00etara.

Kirol Gunea

Astelehenetik ostiralera 10etatik 12:30era eta 17etatik 21etara, larunbatetan 9etatik 13etara, igandetan itxita. Udalaren Kirol Instalazioen erabiltzaileei, ondoko hau gogorazten diegu: Abonuak Buruntzaldeako edozein Udalaren Kirol Instalazio, edozein momentutan erabiltzeko bidea ematen duela (gune bakoitzeko arau eta egutegia errespetatuaz

Kiroldegia bi astez itxita

Lasarte-Oriako Udalaren Kirol-Instalazioak abuztuaren 3tik 17ra bitartean (bi egunak bane), itxita egongo dira, instalazioen mantenimendua eta garbiketa egiteko, instalazioak martxan dauden bitartean eginkizun horiek ezin baitira egin. Bestetik, Michelingo kirol gunea uztailearen 31an itxita egongo da. Kiroldegiko ordezkariak jakinarazi dute, egun horietan Kirol Instalazioko Abonatuak beste Instalakuntza hauek erabiltzeko aukera izango dutela: Urnieta (943-008328) eta Hernani (943-552185).

Euskara ikasten aritu direnek beka jasotzeko aukera

Udaleko euskarako zerbitzuak jakinarazi du 2007-2008 ikasturtean euskara ikasten aritu diren lasarteoritarrek beka jasotzeko aukera dutela. Horretarako, interesatuek subentzio-eskaerak Udaleko

Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte, bulego-orduen barruan eta ondoko jarraibideen arabera.

Batetik, subentzio-eskaera dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko dira.

Bestetik, eskaerarako eta zinpeko deklaraziorako ereduak behar bezala beteta aurkeztuko ditu, eta eskaerari erantsi subentzioak jasotzeko baldintzak akreditatzeko eskatutako agiriak.

Argibide gehiago nahi izanez gero, euskarako zerbitzura jo daiteke edo 943 376184 telefono zenbakira deitu dezakezue.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behea



Parodiako aktore eta parte-hartzaileei deialdia

Dagoeneko antolatzaileak buru-belarri dabilta Sana Anako parodiaren antolaketa eta deialdia luzatu nahi diete bertan parte hartu nahi duten herritar gutzietan. Interesa dutenek deitu dezatela 943 371448 telefonora edo Ttakunetik pasa daitezela. Animatu ondo pasatzera!



Okendo frontoiko azken filma

Okendo Zinema Taldeak *Viaje a Darjeeling* eskainiko du ostegunean 22:30ean

Ostegun gauean Okendo frontoian azkeneko pelikula ikusteko aukera izango duzue. Izan ere, frontoia desagertuko da Udalak hartu duen erabakiaren ostean. Hau da, Udalak Okendo plaza berritze-ko lanetan Okendoko frontoia, hainbeste gauza jaso dituen frontoia, ez du lekurik izango. Beraz, Okendoko frontisean ez da filme gehiagorik ikusiko.

Okendo Zinema Taldeak hogeitau urteetan zehar udako zinemarekin gozatzeko aukera eskaini digu. Gauetako sesio hauetan parte hartu duenak gogoan izango du pelikularen bat, ondo pasa zuelako, pelikularen musika gogoan duelako, gau horretan euria egin zuelako... Okendo taldekoek izenburu batzuk ekarri dituzte gogora: Tim Burtonen *Bittel Chus*, *La familia Addams*, Charles Chaplinen *Tiempos Modernos*, Chuck Berry musikariari buruzko filmea *Hail! Hail! Rock 'n' Roll*, *Allien...* Garai hartan Okendo Zinema Taldean zeudenek bereziki bi momentu gogoratu dituzte. The Blues Brothers taldearen *Granujas a todo ritmo* pelikula eman zuten eguna historikoa izan zela kontatu digute: "gau horretan frontoia lepo zegoen, jende askok zutik ikusi zuten pelikula. Gainera, egun horretan frontoian lehergailu bat zegoela abisua jaso genuen. Polizia etorri, frontoia hustu eta dena ondo begiratu ostean, jendea

berriz frontoira sartu zen pelikularen amaiera ikusteko". Ahaztuko ez duten beste momentu bat *Romeo y Julieta* pelikula eskaini zutenekoa da. "Egun horretan pelikula amaitu gabe zegoela, euria hasi zuen eta bertan behera utzi behar genuela esan genuenean, jendea haserretu egin zen eta amaiera ikusi gabe ez zirela joango esaten ziguten. Batzuen artean, olana bat eskuz eutsi behar izan genuen pelikula amaitu arte".

Ostegunetako zineak harrera ona izan du

Okendo Zinema Taldeak bi urtez emanaldiak eten ondoren, aurten berriz ere ekin diote ostegunetako proiektioei. Udalarekin egindako hitzarmenak frogatu moduan urte beteko epea jasotzen du. Ostegunetako emanaldiek

urte honetan zehar izango duten harreraren arabera, ostegunetako zineak jarraipena izango du, edo ez.

Otsailean ekin zioten denboraldiari eta hamabostean behin pelikula bat eskaini digute eta dagoeneko 8 filme ikusi ahal izan dira kultur etxean. Okendoko kideak baikorrak dira, izan ere, ostegunetan, bataz beste, 70 pertsona gerturatu dira ostegunetako zinea ikustea. "Baina arrakasta handiena izan duen pelikula Lucio izan da, 110 sarrera saldu genituen gau horretan", diote Okendoko kideek, "Uste dugu pelikulen aukeraketarekin asmatu dugula eta jendeak erantzuten ari da. Gure ustez denon artean frogatu gaitu dugu. Eskertu nahi ditugu herritarrak eta Udala guregatik apustu egitegatik. Eta gogorarazi urrian berriz

hor egongo garelako, ostegun gauean pelikula berrieekin".

Udara osteko filmeak

Okendo Zinema Taldeko kideek udan oporrak hartuko dituzten arren, urritik abendurako pelikulen zerrenda eginda utziko dute eta ondorengo filmeak proposatzen dizkigute: urrian *Kitchen stories* (zine nordikoa) eta *Talk to me* (EEBB); azaroan, *Persepolis* (Iran) eta *El telón de azúcar* (Kuba) eta abenduan *Buda explotó de vergüenza* (Iran-Frantzia) eta *Prohibido prohibir*.

"Pelikula ez komertzialak eta hungikarriak aukeratzeko saiatzen gara". Herrialde eta kolore askotako pelikulak ikusteko aukera eskainiko du Okendo Zinema Taldeak, urritik abendura bitartean.

Udako zinea Okendoko frontoian amaitzear dago, beraz, ostegun honetan ez galdu aukera eta hurbildu frontoian ikusi ahal izango den azken pelikulaz gozatzea: *Viaje a Darjeeling*. "Emanaldi berezia izango delakoan gaude".



Viaje a Darjeeling

Urte batez elkar hitz egin ez duten hiru anai amerikarrek Indian zehar bidai bat egitea erabakitzen dute, euren arteko harremana sendotzeko asmoarekin. Baina, "bilaketa espiritual" laster amaitzen da eta basamortuaren erdian hamaika maletekin, inpresora batekin eta makina batekin geratzen dira. Momentu honetan, beste bidai berri bati ekiten diote.

“ Hogeitau urte ondoren, osteguneko filma Okendoko frontoian ikusi ahal izango den azkena izango da